

Ameriketara joan nintzan...

Gure astekariaren irakurle euskaldunak gutxitan asetzen baditugu ere, bazuten oraintsurarte idazle paregabe bat hilabeteotan umezurtz utziak gaituena. Jarraitzaile etengabeak igarriko zuen Txillardegiren izena.

Ba, luma dastagarri horren falta ez du haserreak ez inongo gaixok eragin, Euskaditik milaka kilometrotara egotea gaixo gutxi ez bada ere. Ameriketako Estatu Batuen barna ari da Txillardegi, euskararen ikertzaile nekaezin, beti askatasun era deramaten bideak laburtzeko laburbidea bilatu ezinik beste herri zapalduen askatasun esperientziengua hurbilduz.

California aldean ere horretan, New-York aldean ere horretan, ere horretan...

Iparrameriketan zehar.

Ez omen du Txillardegik ekinalderarte bere urtebetetako esperientzia ikertzaile honen berririk eman ahal izango, baina, bienbitarte, ezin ixilik egon, eta kilometro haiek arimaz edo gaintu nahiez Txillardegik komunikatu beharra nabaria eratsi digu eta eskutitz antzerako hauek bidali dizkigu Berrogei urtetan murgildua den euskaldun, euskaltzale eta abertzale nekagaitz baten gogoak honela eragin dio bere lumari, eta bost ekitalditan argitaratuko ditugu Txillardegiren pasadizu gogoetak

Hare Krsna Venise-n

Txillardegi

Prensa bidez jakin nuen: Abuztuaren 16an, igandez beraz, beren urteroko «Rathayatra» ospatu behar zuten inguru hauetako Hare-Krsna-zaleek Los Angeles alderdiko «Venise» auzoan, itsasaldean. Antzinako India alderako joera zaharrak eraginik ote? Estatu Batuetako sekta-zaletasun harrigarria bertatik neurtzeko agian? Denetarik nahasian, nik uste.

Orain dela hamabi urte zeharo harritu ninduten burusoilak ikusi nahi nituen berriro; eta inpresio batzu euskaldun irakurleei eman. Agian bat edo beste «Oxford street» kaleari buruzko topaketaz zerbait idatzi nuela gogoratzen da oraindik...

Venise auzoa berez bitxia eta Koloretsua izanik (beste batez menturaz zerbait kondatuko dizuet Venise-z), areago Abuztu igande bero hartan. India-ko giroa hobeki eman nahiz edo, eguzkia dirdaitsu zegoen zeruan, eta sargoria ez zen makala. Hamabost bat oihal-txapola belardi baten inguruan: Krsna-ren irudiak batean, India-ri buruzko filma laburrak bestean; larazki-janariak hemen, Krsna-ri buruzko liburuak han, inglez ezta gaztelaniaz; predikari nekagaitz bat hemen, mila usain berezi salgai han. Eta erdian, nolabait belardiarren ardatzean, halako aldare bitxi eta nabar batetan, geldi-geldi, zir-

kinik ere egin gabe, Bhaktiredanta Swami Prabhupada bera! Beroa Kiskalgarria izanik, hiru prailegaik, aldarean bertan eserita, etengabe eragiten zieten beren haizagailu zuriari: itxuraz makila bat, eta honen muturrean halako luma zuri leunak edo, gora eta behera balantza amaigabea ari.

Elefanteak berak ez ziren han falta; eta hurrek ez zieten atsedenaldi luzerik uzten; bizkar konkor hartan launa, are seina ere, belardiaren ingurua zoratuta egiten zutelarik.

zala, lurrean eseritzeko eskatu digute, «back to back» (bizkarrez bizkar), eta ilaren artean zerbitzariak pasatzeko adina tarteaz uzten genuelarik. Musika ere orduantxe hasi da = halako rock-jazz-hindu zerbait, erritmo handikoa. Artean, aldare ezin koloretsuago haren erdian, Prabhupada osoki geldirik;



eta beronen bi alderdietan eta gainean, hiru frailegai gazte burusoi-lak jo-ta-ke beren haizagailuez aire ematen ari.

Zer eman ziguten ez dakit. Halako talo bitxia, salda bitxiagoa, eta koko puska pare bat. Edaria ere... auskalo!

Eta kantaldia hasi da: «Hare Krsna! Hare Hare! Hare Roma! Hare Hare!». Beste letrarik ez. «Chanting Hare Krsna is sufficient for liberation; there is no doubt about it» (Prabhupada-k idatzia). Oraingo mendea, «Kaji»ren mendea omen; eta, gaur gaurkoz, «Hare Krsna» kantatzea bezalakorik ez omen dago. Liburu-postuan, liburuez mukurru jartzeaz gain, saltzailereren batekin mintzatu naiz erdi-ingelese; eta Kalifornian, eta multzotan, bizi direla azaldu dit. Mogimendua aurrera bide doa azkar.

Zortzietan, hiru orduz iraundako saioa bukatzean, gelditu egin dira aldare nagusiko hiru haize egileak; eta, ni bederen erabat txundituz, kendu egin dute erditik Prabhu-

pada-ren imajina zehatza besterik ez zena. Prabhupada agurgarria 1977an hil baitzen.

Baina kantuak ez ziren bukatu = Krsna-zuleen egun handia zen; eta «Hare Krsna» hitzak dituen «mantra» bezalakorik ez dagoenez gero, dantzarien eta musikarien saio ez zen kolpez amaitu. Espeziez eta intsentsu usain harri-garriz horniturik, kutsu bitxia hartzen zuen «Kirtana» azkengabe hark Kalifornia berrizaleko iluna-barran. Zer adierazten ote zuen jendetza hark? Ezer ez agian, badakit = Los Angeles-ek hamar bat miloi ditu. Baina...

Hare Krsna-zaleek ehun eliza eraiki dituzte munduan barrena eta hamabost urtetan. Edozein elkarte edo mogimendu abiaraztea kostatzen dena ezagutzen dutenek, badute fenomeno honetan zer harriturik. Zeren-eta, zer dio «Hare Krsna» zaleen mezuak?

Hain zuzen ere, gaurko gizonak oso nekez sinets ditzakeen ideiak defenditzen ditu. Esate baterako: arina hilezkorra dela, eta hil ondo-

ren beste gorputz batetara pasatzen dela, «Karma» delakoaren arauera; eta, «mukti» lortuta, kontzientzia hutsera ez pasaz gero, bederen. «Bhagarad-Gita» liburua, liburu vedikoen parte bat, errebelazioa dela, Krsna-k berak adierazia (Krsna Jainkoa izanik, jakina). «Zientzia vedikoa», orain arte 50 mende bildua, hutseginezina dela: «The Vedic Knowledge is infallible». Emakumeak, nekazariak eta merkatariak bezala buruz ez oso argituak, gizasemeen menpean jarri behar dira (menpekotasun hau nabarmen ikusten da Krsna-zaleen agerraldietan). Eta abar.

Nolanahi ere, atzera egiteko edo lotsatzeko itxurarik ez dute. Joan den larunbatean, hemengo U.C.L.A. unibertsitatearen ondoan, Westwood-en, eta hippien eta zelebre mota guztien artean nabarmen, hortxe ari zen talde bat, «Kirtana» eta «rasa Jija» betean, entzuleren bat ere beren dantzaldi etengabera biltzen zelarik... zeren-eta «Veda» famatueta agertzen diren bertsoak, gure Joanes Etxeberrikoarenak bezala, kantatuak izateko pres-tatu baitziren.

India zaharra, beraz, hor dugu. Krsna-zaleek ez dituzte beren heretikoak begi onez ikusten. Hauen artean, espero zitekeenez, Gandhi jartzen dute. Harrigarriago zaigu Sri Aurobindo ere «okertuen» artean aurkitzea. Baina Vedetan ageri den ikuspegi kosmikoa, budismoan ere nabarmen, baina kristautasunean ez uste bezain urrun, gizonak bere barruan daraman lilura azkarra da. Nietzsche-rekin gertatzen den bezalaxe, miñtzo zaiguna ez baita agian filosofoa edo profeta, poeta gaitza eta hilezkorra baizik. Krsna-tarren bidez, usainen mundua, banazki-janariak eta «Veda» zaharren poesia berriz biltzen baditugu, zinez, balio zuen Bhaktivedanta Swami Prabhupada-ren ahalegina.

Eta sanskritoak, Lingustikaz gain, bere betekizuna izango du.

